


4. Bilboko udalerrria eta eliza-antolamendua

Diego Lopez de Haro V.a Bizkaiko Jaunak 1300ean Bilbori emandako hiri-gutunak 60 bat kilometro koadroko udal-barrutia ezarri zuen hiribilduarentzat, ez oso handia Gipuzkoako beste hiribildu batzuk jaso zutenarekin alderatuta. Donostiak, esate baterako, 356 km²-ko udal-barrutia zuen. Jatorrizko azalera horretan aldaketa handiak gertatu ziren denboraren poderioz. Hasieran handitu egin zen, baina Erdi Aroaren amaierarako hutsean geratu zen¹.

4.1. Hiri-gutunean emandako espazioa

Hiri-gutuna ez zen oso zehatza deskribapenari dagokionez eta honela ezarri zituen Bilboko udal-barrutiaren mugak: *“Et otorgo vos que ayades por terminos desde como toma el puntal de fondon de çorroça do se yuntan amas las aguas ribera del agua arriba que viene de valmaseda fasta el arroyo que viene por somo del campo de çornoça que es en derecho de percheta. Et dende do pega el arroyo dacordoyaga. Et dende asi como va el cerro arriba fasta el sel de eguiluz et a fagassarri et a olaluçeta et a*



BILBOKO UDAL-BARRUTIA 1300. URTEAN

buyana de suso, asi como viene por çima de la sierra. Et al vado de echavarri. Et dende de como va el camino de echavarri fasta çima la sierra de ganguren, et dende fastal puntal de fondon de deustu en derecho de luchana, asi como avedes parados los terminos e amojonados con tales los de çamudio et de alfoz durive”.

Ondorengo mugak zituen Bilboko udal-barrutiak ibaiaren norabideari jarraituz: Zorrotzan Kadagoa ibaiaren urak Bilboko itsasadarrera isurtzen diren tokitik hasi eta hiritik gertu, ehunka metro gutxira, zegoen Etxebarriko ibiraino. Bertan, Ibaizabalek meandro sakona sortzen zuen. Ibaiaren zeharkako eran, bestalde, hiria inguratzen duten bi mendikateen artean zegoen udal-barrutia, eta bi ziren garaiara nagusiak: hego-mendebaldean Pagasarri mendia, 689 metrokoa, eta ipar-ekialdean Apiril mendia, 383 metrokoa. Beraz, oso garaiak ez izan arren aldapa malkartsuz beteta zeuden bi mendikateren artean zegoen kokatuta hiri-gutunean Bilbori emandako udal-barrutia. Bi mendikate horiek harresi-lana egiten zuten. Bilbori emandako lurak Zamudioko udal-barrutitik eta Uribeko landa-barrutitik banandutakoak ziren.

Nerbioiko hiriari emandako udal-barrutian Abando, Begoña eta Deustuko elizateak sortu zituzten. Abando ez zuten aipatu ere egin hiri-gutunean, baina bai Deustua eta Begoña. Lehenengoari buruz ainguratokia zuela zioen gutunak, eta bigarrenaren inguruan, huraxe zela herri berria eraikitze-ko lekua².

Hasiera batean eta XIV. mende osoan zehar, hiribilduak ez zuen barrutiaren gain zuen jurisdikzioa bete-betean erabili nahi izan, batik bat bertako gizarte hiritarren ahultasunak uzten ez ziolako. XV. mendean, gutunaren bidez eskuratutako jurisdikzioa neurri handiagoan betearazteko moduan zegoela, elizateei egin behar izan zien aurre, ez baitzeuden bilbotarren nahien aurrean amore emateko prest. Orduantxe sortu ziren Bilbo hiribilduaren

eta bere udal-barrutiaren arteko gatazkarik gogorrenak.

Egia esan, hiri-gutuna bera dugu Lurralde Irekiarekin sortutako gatazkaren iturburua: barrutiak zehatz-mehatz finkatu ez zituelako sortu ziren liskarrak³. Barrutia hitzaz ari garenean, latineko erroitik ondorioztatzen dena ulertzen bada (bere baitan dituen nekazaritza-lur eta mendi guztiak), ez dago dudarik Abandoko eta Deustuko elizateak eta Arrigorriaga, Galdakao eta Sondikakoen eremu batzuk Bilboko jurisdikzioari zegozkiola. Baina barrutitzat Jau-narenak izanik hiriari eman zitzaizkion espazioak hartuz gero, Santiago elizaren inguruko eraikinetara eta Bilboko udal-barrutiko jabegoetara murrizten zen Bilboko jurisdikzioa. Definizio falta horretan, hiribildua udal-barrutiaren gain monopolioa lortzen saiatu zelako eta udal-barrutiko landa-infantzoiak hiritar izateko prest ez zeudelako sortu ziren liskarrak.

Gipuzkoan eta Araban gertatutakoaz bestela, Bizkaiko hiriek ez zuten infantzoi-entzuen pribilegio-estatutua onartu. Gipuzkoan eta Araban, Gasteizen eta Agurainen izan ezik, infantzoi-entzuen pribilegio pertsonalak zituzten. Bizkaian hiribilduetako biztanleen lursailei inmunitatea aitortzen zitzaien, baina infantzoi-entzuen pribilegio-estatuturik onartzen, eta behin hiritartzen zirenean, petxero bihurtzen ziren. Ondorioz, XIV. mendean Gipuzkoako hiribilduek ia Lurralde Ireki guztiak lekuan lekuko udal-barrutian sartzea lortu zuten, baina Bizkaian, aitzitik, ezin izan zuten inoiz horrelakorik egin, hiritar bihurtuz pribilegio-estatutua galdu nahi ez zuten infantzoi-entzuen asko bizi zirelako bertan.

Horrenbestez, Bizkaiko hiribilduek infantzoienganako izandako jarrera berezi horren eraginez, bi eremuen arteko gatazka etengabeak izan ziren: Gipuzkoan ez bezala, hiribilduak eta Lurralde Irekia aurrez aurre egon ziren, lehen aipaturiko arrazoiengatik⁴.

Merkataritzaren alorreko asmo monopolisten eraginez, bestalde, hamaika harre-



DEUSTUKO SAN PEDRO ELIZA
Altube, F.: *De Bilbao a San Sebastián*.
Gipuzkoako Kutxa, Donostia, 1987

man txar eta tirabira sortu ziren XV. mendearen hasieratik. Gero, mendearen erdia aldera, liskarrak gogortu egin ziren Bilbok ez zituelako onartu Velascotar ahaltsuek Barakaldoko hiria fundatzeko zuten asmoa; izan ere, fundatuz gero, bilbotarrek itsasadarraren gain zituzten eskubideak bertan behera geratuko ziren eta. Gatazka horretan hiria garaile atera zen arren, elizateek bilbotarren jarrerari buruz zituzten keak ez ziren baretu, ezta hurrik eman ere, eta XV. mendeko azken urteetan eta XVI.eko aurrenekoetan gatazkek gailurra jo zuen.

Elizateek adierazitako arrazoietako batzuk hiribilduaren pribilegioekin eta pribilegio horien erabilerarekin zuten zerikusia. Bilbon merkataritzaren alorrean ezarritako ordenantzen helburua monopolioa lortzea zen, baina elizateek ez zuten onartu. Aipa ditzagun ordenantza eta estatutuen xedapen batzuk: atzerritarrek debekatuta zuten hiribilduan edo bertako maizterrei burdina eta altzairua erostea, bai gordina bai xehea, eta baita maizterren artean txikizkako salmentan jardutea ere;

hiribildutik Lurralde Irekira ateratzen zen zamabere bakoitzeko bi erreal kobratzen zituzten, zama eta guzti edo zamarik gabe sartu ziren kontuan hartu gabe; ardo zuria eta garia saltzeagatik zubi-saria, bidesaria eta salgaien gaineko zerga ordaindu behar ziren, eta gainera, ez zegoen hiribildutik ateratzerik anega bat baino gehiago bizkarran hartuta; sardinak otarre eta guzti erosi behar ziren⁵.

Elizateek honela erantzun zieten bilbotarren asmoei: Bilbon betidanik erosi ahal izan zituztela burdina eta altzairua, bai handizka eta bai txikizka, ordura arte inork ez ziela eragozpenik jarri garia erosteko, eta oro har, Bilbok Lurralde Irekiaz aprobe txatu nahi zuela bere ekonomiaren mesedetan.


Hiribilduaren eta udal-barrutiaren arteko hirugarren gatazka-aldia, lehen ere aipatu duguna, bigarrenari ezarritako mugek eragin zuten. XV. mendean, gutunaren bidez eskuratutako udal-barrutien gain zuen jurisdikzioa tinko erabiltzeko moduan zegoen Bilbo, baina asmo horiei aurre egin zieten XIV. mendeko ahulezia gainditu ondoren XV.ean garapenaren gailurrean zeuden elizateek.

Bilbotarrek udal-barrutizat jo zituzten bertako nekazaritza-lur eta mendi guztiak, baina elizateek beste iritzi bat zuten: harresitik kanpo egonik, etxe batzuk baino ez zirela hiribilduarenak, eta inondik inora ere elizate osoak. Elizateen esanetan, biztanle batzuek Bilbo hiriaren eskaerarekin bat egin izana beren produktuak arazorik gabe sartu eta ateratzeko nahiaren ondorioa zen, baina horrek ez zuen esan nahi, besterik gabe, denek Bilboko jurisdikzioaren mende jarri behar zutenik. Bilbok askatasun osoz erabili nahi zuen bere jurisdikzioa hirigutunak eman zizkion lurraldeetan, baina elizateek ziotenez, ordura arte jurisdikzio hori ez zen inoiz erabili hiriko harresietatik kanpo, elizateek baimenik eman gabe behinik behin.

4.2. Bilboko udal-barrutiaren bilakaera XIV eta XV. mendeetan

1375eko martxoaren 12an Joan I.a Gaztelakoak, garai hartan infante zenak, emandako pribilegioei esker udal-barrutia nola handitzen zen ikusi zuten hiritarrek, Galdakao, Zaratamo eta Arrigorriagako erroldako nekazariak erantsi zitzaizkionean. Nekazariak beraiek eskatuta sartu ziren udal-barrutian, aitoren semeen gehiegikerietatik ihes egiteko modua aurkitu baitzuten horrela. Nekazariak salatu zuten «*que sufrian muchos daños y fuerzas e tomas por parte de algunos fijosdalgo de Vizcaya*»⁶. Dena den, garai hartan gorriak ikusi zituzten Jaurerrian, bidegabekeriak eta asaldurak ohikoak baitziren; jauntxoek gehiegikeriek ere lotura estua zuten egoera horrekin. Beraz, 1376an Joan infanteak Mungia, Larrabetzu eta Errigoiti fundatu behar izan zituen hango biztanleak babesteko.

Hiri-gutunean honela zegoen adierazita nekazariak udal-barrutian sartzeko erabakia: “*Otrosi do por terminos á la dicha villa de Bilbao las dichas anteiglesias salvo ende á los labradores de la anteiglesia de Arrigorriaga que yo di á la mi villa nueva de miravalles que yo*



mande poblar y salvo los terminos que yo di á la mi villa nueva de miravalles...”. Infanteak


mero mixto imperio jurisdikzioa (nahita jarduten zuten gaizkileak zigortzeko, kausa zibilei buruzko epaiak emateko eta epai horiek betearazteko ahalmena) eman zion Bilbori, Zaratamo, Galdakao eta Arrigorriagako elizateetako nekazarien gain. Eskubide horretatik kanpo utzi zituen bai aitoren semeen jabetzak bai 1375ean bertan fundatutako Miraballes hiribilduari aurretik eman zitzaiona.

1385ean, lehen aipatutako emakida baino hamar urte geroago, Bilboko udal-barrutiko lurra mugarritu egin zituzten Arrigorriaga, Galdakao, Zaratamo, Bedia eta Lemoako elizateen bidez⁷. Garai hartan, Nerbioi itsasadarraren inguruan sortutako hiritik aldizkako bisitak egiten zituzten Deustua, Abando, Begoña eta udal-barruti erantsi berrietara beren jurisdikzioa ziurtatzeko. Bisita horietan ostatu, taberna, harategi, errota, labe, pisu eta neurriak ikuskatzen zituzten, eta era berean, Bilboko kontzejuaren mendi, udal-barruti, sail, mugarri eta lurra. Bizimodu txarreko jendeari eta debekatutako jokoei buruzko informazioa ere biltzen zuten, araua hautsi zutenei zigorrak eta isunak ezartzeko. Deustuko San Pedro eta Abandoko San Bizente elizateetan Bilboren jurisdikzioa metagarria zen, lehenengoan Bilboko biztanleen etxerik ez zegoen arren. Begoñako elizatean, berriz, leku batzuetan metagarria zen eta beste batzuetan pribatiboa. Begoñako elizatea zen biztanle gehien zituen hiriko auzoa, baina udal-agintariak aldizkako bisitak egiteari uzten hasi ziren, eta horrela, jurisdikzioa galduz joan zen⁸.

XV. mendearen hasieratik Bilboren eta udal-barrutiko elizateen arteko gatazkak etengabe ugaritu ziren, batik bat lehen aipaturiko hiru arrazoiengatik: landako aitoren semeek ez zutelako hiritar izan nahi, Bilbo jurisdikzioaz baliatzean gehiegikerietan erortzen

zelako eta jurisdikzioaren erabilera-esparruaren inguruan denak bat ez zetozelako. Elizateek hiriari ez zioten hango jurisdik-

hiriak bere jurisdikzioa hutsera murriztuta ikusi zuelako eta elizateek nahi zuten guztia lortu ez zutelako. Erretereria, esaterako,



zioa erabiltzen uzten, ordura arte Bilbok harresiz kanpoko jurisdikzioa elizateen baimenarekin baino ez zuela erabili aldarrikatuz. Ezezko horren aurrean, hiri-gutunean emandako udal-barruti guztien gaineko eskubideei eusten saiatu zen hiria.

1498an, Errege-erregina Katolikoek Bizkaia osoa mugarriztatzea agindu zuten, eta hiriak eta Lurralde Irekiak lehian jardun zuten berriro, barrutiak finkatzeko. 1500ean Cueto lizentziatuak Lurralde Irekiaren aldeko epaia eman zuen auzian. Epaia horrek harresiaren barruko lurralde eta errebaletara eta herritartutako elizateetako auzo eta orubeetara murriztu zuen Bilboko jurisdikzioaren esparrua. Behin epaia eman eta gero, mugariak jartzeari ekin behar zitzaion, baina bi aldeek apelatu egin zuten:

hiriko jurisdikzioaren pean gelditu zela alegatu zuten, eta ordura arte inoiz ez zela horrela egon.

Epaia birritan berretsi zuten: 1509an eta 1529an. Bigarren berrespenaren arabera, gainera, Begoñako hamarrenak eta pribilegioak babestuta geratu ziren. Lurralde Irekiak apelatzen jarraitu zuen Bilboko jurisdikzioa are gehiago murriztu nahian, baina 1538ko behin betiko epaiak 1529koaren bidetik jo zuen.

Elizateek Bilboko jurisdikzioa murriztea lortu zuten arren, ordurako izugarri garatuta zegoenez, hiria gai izan zen galerak gaintu eta hedapen ekonomikoarekin jarraitzeko, inguruko elizateak behin eta berriz gailenduz. Dekretuek ezin izan zuten gelditu bilbotarren handinahia.


4.3. Eliza-antolamendua

Erdi Aroan eliza funtsezko boterea zen eta norbanakoen bizitzan eragin ikaragarria zuen. Horrenbestez, elizak ezartzen zituen herritarren erritmoak, eliztarrek bizitzan zehar izan behar zuten jokabidea eta zein erritotan hartu behar zuten parte. Gehiegieria izango litzateke norbanakoen bizitza erabat elizaren mende zegoela esatea, baina onartu beharra dago Erdi Aroan (eta duela gutxi arte) eliza elementu erabakigarria izan zela Europaren mendebaldeko gizar-tean.

Bizkaian ere jaun eta jabe zen eliza, baina oso ezaugarri bereziak zituen Gaztelako erreinuan ohikoa zenarekin alderatuz. Hiri-bilduetako biztanleek landa-eremuetakoek baino joera handiagoa zuten elizaren ildoetara jarraitzeko, baina joerak joera, elizarentzat ez zen erraza izan ez batean ez bestean bere aginduak betearazte.

Erdi Aroan, bi elizbarrutitan banatuta zegoen Bizkaia: Burgosekoan (Enkarterriak hartzen zituen) eta Kalagorrikoan (Bizkaiko gainerako lurraldea hartzen zuena). Bizkaia Burgoseko eta Kalagorriko eliza-agintarien mende eta esanetara zegoen arren, agintari horien nagusitasuna hutsean geratu zen, batik bat bizkaitarrek gotzainari eta bikarioei beren lurraldean sartzeko utzi ez zieten eta. Bizkaiko Foru Zaharreko CCXV. liburukiaalak dioenez, ordura arte ohikoa zen hori: *“...antiguamente habian de fuero e uso e costumbre (los vizcaínos) que en el dicho Condado non entrare obispo nin sus vicarios nin otro, ni se publicaren sus cartas desaforadas contra los dichos escuderos e homes buenos del dicho condado de Vizcaya”*⁹.

Gotzainak, elizbarrutiko agintari gorena zen aldetik, eskumen handiak zituen Erdi Aroan, batik bat bisita kanonikoak eta kontzilioak; baina Gaztelan eta, bereziki, Bizkaian erruz murriztu zioten aginpidea. Bizkaian, udal-agintariak aurre egin zioten gotzainaren kontrolari, beren arazoetan ahalik eta urrutien eduki nahi zutelako. Oso gutxitan onartu zuten bizkaitarrek gotzainaren partaidetza, eta onartu zutenean, arazo jakinen batean bitartekaritza-lanak egiteko izan zen. 1379an gatazka sortu zen Bilbon, Santiago elizan ez zegoelako nahi zuten guztiak ehorzteko beste leku. Orduan, Kalagorriko gotzainak gatazkan parte hartu eta erabaki hau hartu zuen: berak izendatutako lau hiritarrek egingo zutela hautaketa¹⁰.



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

Aipatu berri dugun adibidea eta beste gutxi batzuk gorabehera, elizaren aginpidea ez zen handiegia izan Bizkaian, Erdi Aro osoan. XVI. mendean lortu zuten gotzaina Jaurerrian sartzeko akordioa. Bizkaitarrak gotzainarenganako hain jarrera itxia izatera eraman zituzten arrazoi nagusiak ondorengoak izan ziren: ekonomikoak (gotzainaren mende zeudenek erroldak eta Bizkaiko parroketako hamarrenen zati bat ordaindu behar zituzten), juridikoak (agintari zibilen eta elizakoen arteko eskumenborroka saihesteko batez ere) eta politikoak (ez zuten gotzainak Jaurerriko bando-ki-


deen arteko borroketan parte hartzerik nahi).

Eliza-agintariek zegozkien eskubideak Jaurerrian erabiltzean izandako eraginkortasun-faltaren aurrean, artzapez-barruti eta parrokiak bihurtu ziren bertako eliza-antolamenduaren funtsezko ardatzak. Artzapezpikua gotzainaren ordezkari goren da. Gotzainek Bizkaian ezer egiteko ahalmenik ez zutenez, artzapezpikuak izan ziren Jaurerriko benetako eliza-agintariak –gotzainei zegozkien eskumenak hartu zituzten–. Gaia oso gutxi ezagutzen den arren, jakin badakigu Bizkaian bederatzi artzapez-barruti zeudela 1445ean, Kalagorriko gotzainak eta Bizkaiko kleroak lortutako adostasunaren ondorioz¹¹: Uribe, Bermeo, Bilbo, Lekeitio, Busturia, Arratia, Durango Lurralde Irekia, Tabira eta Orozko. Elorrioren 1517an izandako auzi batean, Abadiñoko artzapez-barrutia aipatzen da, baina baliteke Durangaldekkoa izatea¹². Esan bezala, jakinena da zenbat artzapez-barruti zeuden, baina ez nolako azalera eta mugak zituzten¹³.

Artzapez-barrutiei buruzko informazioak ez dagoenez, parrokiak askoz ere hurbilagoak eta adierazgarriagoak ditugu horretan guztian. Erdi Aroan, parrokia izan zen Bizkaiko gizartearen ardatza, batik bat elizateetan, parrokiaren eta kontzejuen arteko lotura oso estua zen eta. Lotura estu hori zela eta, biztanleak biltzeko eta eztabaidatzeko gune bihurtu ziren parrokiak: udaletxe, bihitegi, babesleku eta justiziaren deietarako biltoki, alegia. Baina parrokia eta kontzejuak elkarri hain lotuta egoteak ez du esan nahi kontzeju bakoitzean eliza bakarra zegoenik. Izan ere, hiribildu berri askotan eliza bat baino gehiago eraiki zituzten: Bilbon, esate baterako, Santiago elizarekin batera, San Antonio Abade, Donibane eta San Nikolas zeuden.

Eliza-kopurua eta biztanleena beti ez zetozen bat, kontuan hartu behar baitugu, batetik, elizek ospea ematen zieten hiribilduei, eta bestetik, leinuetakoak irrikatzen egoten zirela beren babespeko elizak izateko. Parrokiek egin beharrekoak eraginkortasun handiagoz bete zituzten, ohikoa zen mendeko elizak izatea. Bilbon, adibidez, Donibane eta San Nikolas elizak Santiago elizaren mende zeuden 1499an.

Parrokiaren eta kontzejuaren arteko loturaren ondorioz, bigarrenaren mugak argi eta garbi finkatuta geratu ziren. Horrela, Bilbok Lurralde Irekiarekin 1500ean izandako auzian, Abando, Deustua, Barakaldo, Sestao, Erandio eta Getxoko elizate eta kontzejuak beren jabetzako



parrokiak zituztela adierazi zuten bilbotarren nahiei aurre egiteko eta argudioak indartzeko¹⁴.

Bizkaiko parrokiak botere laikoaren oso mende egon ziren Erdi Aroan patronatuen bitartez. Mendetasunaren arabera, bi motak ziren Bizkaiko elizak: zaldunek sortutakoak –patronatuaren bitartez gerora ere kontrolpean izaten zituzten– eta erregereak, askoz ugariagoak. Bai zaldunen bai erregerearen elizetan, laikoak arduratzen ziren errentak kobratzeaz eta parrokiako postuetarako nor izendatu erabakitzeaz.


Hautagaien muga bakarra klerikoak bertakoak izatea zen.

Parrokia batekoa izateagatik eskubide eta betebeharrak jakin batzuk zituzten eliztarrek. Lehenengoan artean mezak, sakramentuak eta parrokian ehorzterako eskubidea zeuden. Baina eskubideok betebeharrak ziren aldi berean: eliztarrek mezetara joan, sakramentuak hartu eta beren parrokian hartu behar zuten lur. Betebeharrak espiritualez gain, lur-tarragoak ere bazituzten eliztarrek: garrantzitsuena hamarrena ordaintzea zen.

Bilboko hiri-gutunean bertan ere hamarrena ordaintzeari buruzko aipamena egiten da, hau da, hiribildua sortu arren monasterioaren eskubideak ez urratzearen Santiago eta Begoñako elizen artean banatuko direla zehazten du.

1331n Bilboko Santiago eta Begoñako elizak elkarren kontra jarri ziren hamarren-

nengatik. Horra zer erabaki zuten auzia konpontzeko: Begoñako elizak jasotako ogi egosiaren erdia eta hogeita hamarruren gregoriotarretan, urteurrenetan eta mezetan bildutako dirua Santiagoko apaizei ematea. Gainera, Begoñan jasotako hamarrena ere Santiagokoei ematea erabaki zuten, eta horren truke, Santiagoko apaizak Begoñako elizkizun guztiez arduratzea. Era berean, 1500ean Bilboren eta inguruko elizateen artean sortutako auzian, elizateek hamarrena erabili zuten hiribilduarekin loturarik ez zutela frogatzeko: elizateetako biztanle bakoitzak hamarrena bere elizan ordaintzea aspaldi-aspaldiko ohitura zela aldarrikatu zuten, hain zuzen. Beraz, hamarrena parrokiako alderdirik garrantzitsuenetarikoa zen, bai diru-sarrerak ekartzen zituelako, bai auziak sorrarazten zituelako.



Altube, F.: *De Bilbao a San Sebastián*

Oharrak

1. Bilboko mугen gaia oso zabal landu zen ondorengoetan: Guiard, T.: "Toponimia de Bilbao". Gue-zala, A. eta Guiard Larrauri, T.: *Escudo y toponimia de Bilbao*. Biblioteca Vascongada Villar, Bilbo, 1966. 81-100 orr.
2. Ikus García de Cortázar, J.A.: "Sociedad y poder en la Bilbao medieval". *Bilbao, arte e historia*. I. liburukia. Op. cit. 25 or.
3. Ikus Guiard, T.: *Historia de la Noble Villa de Bilbao*. I. liburukia. Op. cit. 50-53 orr.
4. Martínez Díaz, G.: "Poblamiento y Ordenamiento Jurídico..." *Las formas de poblamiento...* Op. cit. 166 or.
5. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. III. liburukia. Op. cit. 348 or.
6. Bilboko udal-barrutia nola handitu zen jakiteko ikus Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. II. liburukia. Op. cit. 433 or.
7. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. II. liburukia. Op. cit. II. 462 or.

8. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. II. liburukia. Op. cit. II. 467 or.
9. Arizaga, García de Cortázar, Ríos eta Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. III. liburukia. Op. cit. 170 or.
10. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Vizcaya*. II liburukia. Op. cit. 853 or.
11. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Vizcaya*. III. liburukia. Op. cit. 119-120 or.
12. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. III. liburukia. Op. cit. 180 or.
13. Bestalde, Zornotzako eta Markinako merindadeak ez dira aipatzen Labayruk 1445ean argitaratutako dokumentuan, eta ez dakigu zein elizbarrutikoak ziren.
14. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. III. liburukia. Op. cit. 182 or.